

LUCIA

Berriro ere irabazle irten naizen arren, galtzaile baten mingostasunarekin bueltan naiz jaiotetxera. Ustedut berriro jaiotzea tokatzen zaidala, bizitzen jarraitu nahi baldin badut behintzat. Orain, gutxienez banaizelako. Izen batekin soilik aldegin nuen, Lucia deitzen nintzela eta orain, egunkaritan maiz azaldu diren izen abizenekin bueltatzen naiz: Lucia Areitioaurtena Isasi Isasmendi. Batzuetan, garaile izan gabe ere, irabazletzat ematen zaituzte. Halakoetan, besteen begietatik ikusten saiatzen zara zure burua, zure buruaz *beste* egiten duzu eta konturatzen zara *bestetasuna* zure betetasunetik urrun gelditzen dela.

Bartzelonatik naka trenak, bere errailetatik naraman bitartean nire errailetara begira jarri nau. Arrotz dakusat nire burua treneko leihoaren kristal difuminatuan, izan ninzenaren ispilu gandu bat delako. Neskame baten trapuekin jantzita hartu nuelako tren hau orain dela urte gutxi batzuk eta *señorita* baten jantziekin bueltatzen naizelako nire herrira. Tren geltoki ondoan jaio nintzen 1925ean, *Erromadetakua* bezala ezagutzen naute, eta larrutuko nauten beldurrez bada ere, azalberritzera berriro etxera nator.

Dotoreziaz eta txukun jantzitako emakume honen atzean ordea, oraindik baserritar bat ezkututzen da, kalekumea laster izateari utziko dion menditarra. Eta amaierako geltokian, dena hasiko da berriro.

Aitaren irudi zaharkituarekin egin dut topo nire oroitzapenetan, oroiminari bide emanaz. Lucia izena jarri omen zidan, itsu itsuan obedienteza izango zen alaba bat desio omen zuelako. Nik geroago, obedientzia eta zintzotasuna gauza bera ez zirela irakatsi nion, ordea. Horregatik, euren artekoa bai baina inoiz ez naiz *gutarra* izan, aitaren begietara. Amak berriz, maiorazgoaren eta elizaren aitatasun santuak gustura onartzen zituen eta ahizpek, anaitasunik ez zidaten inoiz ere erakutsi, ez nindutelako ulertzen. Nebak, bertsio gaztetuak besterik ez ziren. Isilik gehiago esaten zuen aita haren oroitzapenetan murgildu naiz.

Denon onerako izango da egitera noana aita, nire hitza ematen dizut...

- ...
- Denboraldi bat izango da eta laster izango nauzu berriro etxean, nire zereginetan.
- ...
- Nire egoera berean egongo diren haiekin, etxean bezala sentituko naiz!

Eta zure isiltasunak gehiago ezin zuenean, ni isiltzen saiatzen zinen.

- Etzazu bestean izenean hitz egin, Lucia; ez dizut horretarako baimenik ematen.
- Horretarako ezta ere, esan nahiko duzu. Zertarako bai?
- Zure familiaz behar den moduan kargu egin zaitezten uzten dizut.
- Hortara nijo, aita! Gu denon bizimoduak aurrera ateratzera...
- Zuk egingo duzun horrek, ez du *bizimodu* titulurik ere merezi!
- Tren bidaia amaitu bezain laster, Bartzelonako etxe horretan bizitzen jarri, egun batzuk pasatu eta mudantza amaituko dut.
- Mudantza? Ez dadila izan *damu-antza*...

Gerra baten biktima izan zenherria baina horren barruan, emakumeok bigarren mailako biktimak suertatu ginen. Gerraren gordintasunean, frontera borrokatzera joandako gizonei ohorea, ausardia eta leialtasuna aitortu zitzaizkien bitartean, emakumeoi inortxok ere ez zigun ezer aitortu. Herria, armaz defendatzen zen herria, gizonezkoek soilik osatzen zuten baina gure Ermua bezalako herrixkak, emakumeok mantendu genituen bizirik. Ama asko ikusi nituen urte haietan bere 7-8 seme-alabei jaten ematekorik eduki ez eta hala ere, mixeria gorriaren aurka borrokatuz. Hezur eta azala besterik ez ziren amak, baina axaleko bihotzik ez zutenak; baraualdi luzeak egiten euren seme-alabek zeozer ahoratzeko izan zezaten. Mixeriari hortzak erakusten, gosea noizbait baraualdian sartuko zen esperantzan...

Herriak eta kulturak zutik jarrai zezaten lagundu genuen, egunero soroan lan eginez, bertan jasotakoa merkatuan salduz edo garai hits eta ilun haietan, gure hizkuntza, ohitura eta jakinduria txikiagoei transmitituz belarrira xuxurlatutako ipuinen bidez.

Familiari laguntzeko, Bartzelonara zijoan trenan hartzea tokatu zitzaidan niri ordea, *egokitu* hitza agian ez delako zuzena. Ordaindutako lan baten esperantza nuen bederen, hainbeste urtez doan jardun ondoren. Artean, 1941eko azaroa zen. Gerra osteak, horixe bera ekarri zuelako: gure bizitzen zati jakin baten ostea, lapurtu egin zigutela sentitzen genuen. Horregatik, emakumeok gerra osteko gudan bizi ginen.

Nire bidaia, herriko frontoian hasi zen ordea. Neskatoa nintzelarik oraindik, mutilak ikusten nituen herriko frontoian esku-pilotara jokatzen eta nik ere hori nahi nuela otu zitzaidan.

- Baina zu neska zara... hau mutilen kontua da!— kargu hartu zidaten mutilek hasieratik.
- Baina nik ere zuen antzera bi esku ditut...
- Baina ez gureak bezain gogor eta zailduak!
- Hori denborak emango dit... zuek adina ordu sartzen badituzte frontoian, zuen pare jarriko naiz.

Sinesten nuen nire hitzetan, baina are eta gehiago ekintzetan. Haiekin jokatzen hasteko imintzua egin bezain laster, segituan geldiarazi ninduten.

- Jokatu ezazu neskek bezala. Zuk tresna bat behar duzu, zure ahuleziak ezkutatu dituen; hango neskek bezalakoa: raketa izena du!

Frontoiaren atzekaldean taldetxo batean zeudenez begiratu nien. Eskuan tramankulu haiek zituzten eta haiengana hurbildu nintzen.

- Nik ere jokatu nahi dut.
- Ba eseri hemen eta itxaron. Mutilek amaitzean jokatuko dugu guk.
- Ez, ez! Nik korrika egin nahi dut pilotaren atzetik...
- Raketista on baten lehenengo bi mandamentuak: partidak, begira zaudela eta ikasiz ere irabazten dira, eta pilotak zure aurretik egin behar du korrika; zuregandik ihes egin nahiko balu bezala.

Eta jolas hark, nire bizitzaren zati oso bilakatzeko bidea hasi zuen. Ni baino helduagoak ziren hango neska guztiak eta haietako asko, eibartarrak ziren; han indarra hartzen ari omen zen-eta raketisten jokoa. Eta indar hark, ni

indartu ninduen eta pixkanaka pixkanaka nire gorputza zailtzen joan nintzen. Etxeko eginbeharrek eta familia-zaintzak uzten zidaten heinean, inori ezertxo ere esan gabe frontoirako bidea hartzen nuen. Eta frontoia, ni bideratzen hasi zen, gorputza zailtzearekin batera, jokia errazten joan zitzaidalako. Indartu eta bizkortu egin nintzen eta mutilei begira egotetik, mutilak guri begira egotera pasa ziren. Pilotari begira egotetik, hura ikustera eta ondoren, bere ibilbideari aurrea hartzen ikastea; dena bat izan zen. Tantoek alde egitetik, tantoak nire aldera erortzera pasa ziren hilabete gutxi batzuren poderioz. Ordurako jada, Eibarreko Batzoki ondoko frontoiko ordurik jendetsuena gurea izaten zen, jendea adi izaten genuen begira.

Eta noizbait, lurralde urrunetako zurrumurruak iristen hasi zitzaizkigun bertako neskoi.

- Aizue, Bartzelona eta Madril aldean frontoiak eraikitzen ari omen dira barra-barra, raketistok jokatu dezagun!
- Benetan? Gure jokia atsegin duten espainiarrak badaude?
- Bai, hala omen da. Eta euskaldunon antzera, oso jende apustuzalea omen da... gainera, raketisten kontura bizi omen diren jauntxoak ba omen dira eta jauntxoek kontura ongi bizi diren raketistak baita ere, han lana badaukatelako!
- Lana? Guk ere hemen hori soberan daukagu! Guri falta zaiguna ogibidea da...

Halako elkarrizketak maiz errepikatzen hasi ziren gure artean, eta etorkizuna present egoten hasi zen. Dena den, misterioz jositako kontuak ziren: denak ziren *"diotenez"*, *"esan didate"*, *"zurrumuru bat dabil"* eta halakoak. Gainera, nor izango protagonistak eta beti suertatzen ziren *"Durangoko halako baserriko alaba"*, *"lehengusu baten koinatuaren lagun bat"*, *"ezizen misteriotsu batez jokatzeko ari den eibartar bat"*... Hitz batean, inor ez zen protagonistei izenik jartzera ausartzen. Ulertezina egiten zitzaidan hura dena, begien aurreko klandestinitate hura mantendu nahi izana. Nolatan arrakastak eta balentriak pilatzen ari ziren emakume haiek ezagunegiak izateari uko egiten zioten?

Ordurako, raketisten taldeko beste bat izanik ere, haiek baino gehiago nintzen jada. Partidak erraz irabazten nituen eta kideen niganako mirespena erabatekoa zen.

Baina batez ere, raketista izan nahiak ni irabazia ninduen. Eta horretaz ohartuta, gure taldeko helduenak nirekin hitz egiteko nahia adierazi zidan, bakarka.

- Lucia, gu ez, baina zu jada pausoa emateko prest zaude.
- Pausoa? Baina nora?
 - Zure talentua eta zure jokoa benetan estimatuko duten frontoietara. Lur urrunetara, Bartzelonara agian...

Bartzelona niretzako izen arrotz bat zen. Baserri izen batekin soilik lotzen nuen, inguruan entzundako *"Babilonia"*, *"Granada"*, *"Habana"* eta antzeko izenak zituzten baserriak zeudela jakitun. Baserritar haiek sekula ere zapaldu ez zituzten lurraldeei egiten omen zieten erreferentzia.

Baina, antza; nire kideentzat erreferentzia orain ni nintzen. Kideak berean jarraitu zuen.

- Nik gutun bidezko harreman batzuk eginda ditut hango raketista batzuekin eta jauntxoren batekin, etengabe jende berria eskatzen ari baitira. Baiezkoa eman ez gero, nik bitartekari lanak egingo dizkizut. Ohore bat izango da, gainera aitortu zidan negar malkotan.

Eta bitartekoak jartzen hasi nintzen, gu bion arteko tartea zabaldu zedin, aita eta nire artekoa. Eta handik aurrera, kilometroek elkarrengandik urrundu bagintuzten ere, gure arteko distantziak are eta gehiago banatu gintuen. Hala, aitak etxean geratuta, inoranzko amorruzko erromesaldia hasi zuen; nik hainbesteko ibilbidea barne-bidaia bati ekiteko baliatzen nuen bitartean. Bartzelonan, dena berria izanik, nire inuxentzia eraberritu zen. Apopilo hartu ninduten raketisten etxe hartan, otorduak prestatu eta nire arropak garbitzearen lanak soilik hartu nituen. Akabo besteentzako lanak akabatu behar hura. Orain, kargu (eta karga) bakarra neroni nintzen.

- Zure ardura nagusia, ahalik eta partida gehien irabaztean datza. Hori egiteko gai zaren bitartean, ongi biziko zara, Lucia- izan zen frontoiko jauntxoaren esana Bartzelonara iritsi berritan.

Eta guk, gerra galdu genuen baserritar emakume errepublikazaleok, gure errepublika askea sortzeari ekin genion gizonezkoen mundu hartan. Errepublikak, gizonezkoei ideologia soilik eman zien baina emakumeoi, balio batzuk eman zizkigun: etxe hartan denok bata besteari laguntzen genion, inor ez zen bestea baino gehiago eta denok kideak ginen.

Frontoian soilik hausten ziren aurrez hitzartutako arau haiek, jokoak hitza hartzen zuzenean. Kidea arerio bilakatzen zen, bestea baino gehiago izateko ahaleginean murgiltzen ginen frontoiko pareten artean eta gure errepublika asketik haratago, norberak raketisten arteko erregina bihurtzeko ahalegina egiten zuen.

Zaintzaile izatetik, nire buruaren zaindari izatera egin nuen salto eta eliteko kirolari bat nintzela sinestarazi nion nire buruari. Nire kide batzuk, elite lurtar batean bizi ziren ordea. Haien Olinpoak, bere horretan, goitik egoten jarraitzen zuen gaueko partida osteko ordu txikietan: hiriko politikari, aktore edo enpresari ezagunek, haiekin nahi izaten zuten parrandan ibili; Olinpoan egunsentia gailentzen zen arte. Gu berriz, frontoian berrogei izaki, berrogeialdian bizi ginen gure etxean: dieta estu bat jarraitzen genuen eta aurretik sinestezina egingo bazitzaidan ere, jatea erabat debekaturik genituen gure baserri txiroko zenbait jaki eta talo; han gustura asko jango nituen! Dirua bagenuen, baina gure kirol jarduerarentzat gehiegi jatearena luxua eta oztopoa zen aldi berean.

Nik ordea, itotasuna arnasten gozatzen nuen frontoian eta hauspo beroaren freskotasun behartu hark biziberritzen ninduen. Izerdiak nire barruko sua pizten zuen eta kolpeen ubeldurak eta odolak zoriontsu egiten ninduten. Minarentzat, barruan sentitzen nuen saminarentzat, sendabide zuzenik ez baina unean uneko botika modura balio zidan leihatzeak. Arerio izugarria nintzen aurkarientzat eta horrek nirekiko etsaitasuna lasaitzen zuen.

Gazteena izaten jarraitzen nuen aldi berean etxe hartan eta horregatik, beste kideei burua garbitu eta ilea orraztera gonbidatzen ninduten barre-

algaren artean. Gustura egiten nuen lan bat zen, pilotan jokatzearekin batera. Egun haietako batean, Felixak beterranoari ilea garbitzen ari nintzaiola, halako batean xamurtasunez eskuak heldu, bere altzoan pausatu eta maitekiro begiratu ninduen.

Nigandik haratago ikusten zuela iruditu zitzaidan.

- Abenturaz gozaten ari zara, Lucia?
- Bai, Felixak. Berrero jaio banintz bezala da. Zeretik hasi banitz bezala, baina ez hutsetik. Hutsa, soilik Ermuan sentitzen nintzen.
- Bai, ni berriz, herriminak jota nago, Luzia. Zazpi urte baino gehiago badira Eibarrera itzuli ez naizela eta beldurra ematen didan arren, etxera bueltatzeko premian aurkitzen naiz.

Hasperen egin nuen. Nik soilik bost hilabete neramatzan han eta Felixaren joko pattalaldiaren berri banuen.

- Norbait daukazu zain herrian, hala?- itaundu nion Felixari.

Irribarre triste batekin erantzun zidan.

- Nire burua daukat hantxe zain. Badira hilabeteak gorputza hemen eta arima han daukadala, Eibarren. Eta jokorako, gorputzaketa arimak biek bategin behar dute derrigorrez.
- Baina zergatik Felixak? Hemen dena daukazu!
- Bai, baina guztia falta zait- erantzun eta malko erauntsia etorri zen gerora.

Gure hizketaldi hura azkenekoa izango zela jakinda, zintzotasunez hitz egin zidan.

- Utzidazu gauza bat esaten, inork oraindik iradoki ez dizuna: kirolari bikaina zara, Lucia. Baina zure arrakasta ez da soilik zure kirol mailarengatik.
- Ah, ez?
- Jarri zaitez frontoian egunero begira izaten dituzun haien begietatik begira eta ulertuko duzu.

Apustuzaleez eta ikusleez ari zen, nonbait. Baina ez nion ulertzen Felixari, gizonezko haiek nire kirol bertuteengatik egiten zutela nire alde ziar

nengoelako. Hori guztia nire begietan islatuta ikusi zuen Felixak, eta jarraitu egin zuen.

- Lucia, ni ere zu izana naiz hona iritsi berritan. Gazteena, lotsagabeena eta mundua jateko prestutasunik handiena duena. Baina gero besteok etortzen jarraitu duzue eta ni zahartu egin nauzue.
- Baina zure jokoak oraindik bikaina izaten jarraitzen du zenbait unetan! Nik zuregandik asko ikasten dut.
- Bai, baina azaldu nahi dizudan horrek ez du kirolarekin zerikusirik. Konturatu zara nola jutzen zaren? Jauntxoak nola jantziarazi nahi zaituen? Pilotakada bakoitzean zure gonak nola egiten duen belaunetatik gora ihes?

Hori zen, beraz. Egia zen hura guztia. Berez, gona motzak nituen gustuko baina jauntxo hark are eta pixka bat gorago josteko gona aholkatzen zidan, *“zure erosotasunerako eta hankak askeago izanda, hobeto mugituko zarelako. Abantaila bat da hori zuretzat”*.

- Lucia, gure herriko gizonezkoak eta hemengoak, finean ez dira hain ezberdinak. Gu jokatzeko ikustea bizipoza da eurentzat, baina ez soilik jokoagatik...- begia kliskatu zidan, keinu konplize batean.

Arrazoia zuen horretan ere. Hura guztia banekien baina ordurarte ez nintzen nire buruari azaltzeko gauza izan. Nolatan aitortuko ziguten halako protagonismoa eta garrantzia? Besterik gabe, pilota bat astintzen onak ginelako? Felixak berean jarraitu zuen. Ia ikutu ere egin gabe eta maitasunez, astindu egin ninduen erabat.

- Zuk Lucia, orain artean bezala, jarrai ezazu hemen ateratako dirua etxera bidaltzen, zure aitari eta anaiei. Jokoa ez da errenta... baina errenta batzuk ordaintzeko balio du! Horrela, bizimodu hobeto bat izan dezaten lagunduko diezu, merezi dute-eta. Ordainetan, zuri amets hau bukatzen zaizunean, haiek lagunduko zaituzte.
- Ai Felixak, ezagutuko bazenitu! Mespretxatu egin naute ongien egiten dakidan hau munduari erakutsi nahi izan diodalako. Ez dute nigan sinesten...

- Gizarteak orohar, ez du gudan sinesten Lucia. Badakizu gainera, "Acción Católica"-koak egunero etxearen bueltan ibiltzen dituztela guregatik gaizki hitz eginez, berriro etxera ekarri gaitzaten erregutuz. Boteretsuak dira eta haien menpe nahi gaituzte. Baina guk historia egin dugu eta noizbait aitortuko digute, ziurtatzen dizut!

Handik aste pare batera egin zuen alde Felixak eta nik berriz, orotara zortzi urte eman ditut Bartzelonan raketista gisara. Tartean, buru, ile, motots eta trentza asko orraztu ditut, pilotak utzi didan heinean.

Azkeneko partidatik garaile irtenda eta erretiroa gazte hartuta, pilota nire teilatuan aurkitzen da, antza. Orain etxe aurrean naiz berriro eta ataka igaro ostean, atakan dagoena orain ni naiz. Aurrez, gutunez adierazia nien nire asmoen berri: etxera nentorrela eta Bartzelonan ikasitako guztiarekin, Ermuan ileapaindegi bat irekitzeko asmoa nekarrela.

Hurbil, baina ez edozertarako gertu, aitak egin dit diosala. Beste senideak, atzean lerratu zaizkio, ikusmiran.

- Bueltatu zara, Lucia.
- Bai, aita. *Norbait* izan ordez *nornahi* izan nintekeela sinetsita itzuli naiz. Baina horretarako, zuen laguntza beharko dut.

Negar malkotan urtzen hasi da aita den gizon hotza. Hotza bai, baina ez delako otzana.

- Zuk mixeriatik ateratzen lagundu gaituzu, Lucia. Nola ez dugu ba gure esku aurkitzen den guztia egingo zuregatik?

Jada irribarrez, xume-xume hizketan jarraitu dut.

- Opari bat ekarri dut. Ea gustatzen zaizuen. Joxe!! Atera zintezke sastraken artetik jada!- oihu eta txistu egin diot aldi berean entzun nazan.

Eta hantxe agertu da Joxe herriko mekanikaria burrunban, Bartzelonatik trenez propio Ermuara ekarri zezaten agindu dudan motorraren gainean metro batzuk eginda, nire ondoraino. Aitak harrituta ikusi du eskena.

- Baina-baina Lucia, gutako inork ez daki motorrik gidatzen! Horiek aberaskumeen kontuak dira!
- Bai, baina opari hau ez da zuentzat. Niretzat da. Bartzelonan gidabaimena atera eta motorrean ibiltzen nintzen hango kaleetan. Nire bizitzaren gidari izango naizela ziurtatzeko modu bat da...

Aitak barre-algaraka hurbiltzeko eskatu dit, besozabalik hartzen nauen bitartean.

- Lucia, zu zara zu!!
- Ez, aita. Ni izatek, *ni neu* izateko bidean jarraitzen dut.

Ez dakit guztiz *gutarra* izan nahi dudan, baina familiarekin senidetzen saiatuko naiz. Hori zor diot gutxienez nire buruari. Baina nire benetako familia agian, oroitzapenetan bada ere, beste *gu haiek* izango ditut betirako: raketistak.

Eta guztiok batera negar eginda, urak bere onera etorriko diren esperantzaz, amultsu besarkatu ditut aita eta gainontzeko familia.

LAMIA